

SARITUTAKO LAU EMAKUME AFRIKARREN BIOGRAFIA

Theresa Kachindamoto

Indar izugarria bezain zuhurra duen emakumea. Dezdako gobernadorea da, Malauin biztanle gehien dituen barrutikoa, eta haurren ezkontza errotik kentzeko borroka egiten du. Soilik 3 urtetan, 2.000 ezkontza baino gehiago geldiaraztea lortu du.

Dezda Malauiko 27 barrutitako bat da, Afrika hegoaldean dagoena, eta bertako gobernadore hautatu zutenetik, Theresa Kachindamoto tribu-buruak eskualdean bananduen dauden herriak igaro ditu bi arazori aurre egitearren: haurren ezkontza eta sexu-hastapeneko errituak neskatila eta nerabeengan.

Kachindamoto buruak berak ondorengo adierazten du: “bulegoko idazkari nagusi bezala lan egin dut 27 urtez, duela 14 urte nire aita hil eta buru nagusiaren kargua nire gain hartu aurretik. Nire ustez, haurren ezkontza antzinako tradizioa da eta kaltegarria haurarentzat berarentzat nahiz Malaui nire herrialdearentzat, eskubide sozialen aurkakoa baita, batez ere hezkuntzarako eskubidearena. Gure tradizioaren arabera, neskatila batek, ezkontzen denean, eskola uzten du, eta automatikoki senarraren etxera joaten da bizitzera, etxea eta seme-alabak zaintzeko”.

Hulo Guillabert

Haurren eskubideen defendatzailea da, bereziki eskale-haurrena (talibesak), gizakien salerosketaren biktimak eta Senegalen pertsona helduen ustiapen ekonomikoaren biktimak baitira. Senegalen jaio zen. Oso gustuko ditu idaztea eta literatura, eta Afrikako artea eta kultura, haurtzarotik. Munduko leku ezberdinetan bizi izan da (Senegal, Boli Kosta, Frantzia, Isla de la Reunión, Quebec,...), eta Afrikako sustraietara errotuta jarraitzen du. Frantziako enpresetan aholkularitza-lanetan ibili ondoren, Afrikako kontinentearen indarra erakusteko argialetxea sortzeko lanetan hasi zen. 2012an Senegalera itzuli zen, eta Dakarreko Nubi Artes kultur espazioa eta arte-galeria sortu zuen. Erabat panafrikarra, honako hauen aktibista da: Renaissance Africaine eta y de Interneteko Bonnes Nouvelles d’Afrique aldizkaria eta Afrika Kontzientzia Topaketena, Afrikako Errenazimenduaren monumentuan hilero hitzaldiak emanaz.

Victoria Nyanjura

Victoria Nyanjura Ugandako 36 urteko emakumea da. Victoria Nyanjura aktibistaren arabera, gobernuek, biztanleria babestu beharrean, haien haurtzaroa harrapatzen utzi dute. Bera ere Jaunaren Erresistentzia Ejertzitua (LRA) izeneko talde paramilitarrak bahitu zuen 1996. urtean, soilik 14 urte zituela eta St Mary’s College-n zebilela. Monja eta irakasle baten negoziatioari esker, bahitutako 139 gaztetatik 109k familiaren etxera itzuli ahal izan zuten. Baina Victoria ez zegoen horien artean, eta 8 urtez preso egon zen, ihes egin ahal izan aurretik.

Bortxatua eta miliziako komandante batekin ezkontzera behartua, 1997an Hegoaldeko Sudanera eraman zuten; han, mutikoak soldatu bihurtzen ziren, eta neskatoak sexu-esklabo, eta seme-alabak eman behar zizkieten taldeko kideei. Mota guztietako torturak eta tratamendu krudelak jasan behar izan zituen. Jipoitua izan zen, gosea pasa zuen, egurats zabalean bizi izan zen, medikuaren laguntzarik gabe izan zituen bere bi seme-alabak, eta militarrei bururatutako era guztietako irainak jasan zituen.

Oumou Sall-Seck

Goundam-eko alkate hautatu zuten lehen aldiz, Tombuctu eskualdean (Mali), 2004ko uztailan. Oumou Sall-Seck-ek Mali berreraikitze konpromisoa hartu du, eta lan horretan, berarentzat emakumearen egitekoa funtsezkoa da gizartean eta politika-arloan. Azken 20 urtetan, mintegietan eta biltzarretan ibili da, besteak beste, gai hauen ingurukoetan: Maliko gobernagarritasuna, deszentralizazioa, lankidetzaren eta honako gai hauei buruzko nazioarteko bileretan: "Lokaletik globalerako demokrazia parte-hartzailea", "Estremismo bortitzaren aurka borrokatzea", eta "Emakumeen eskubideak"; ondorioz, 2009ko maiatzean berriro alkate hautatua izan zen.

Oumou Sall-Seck-i alkate izatea galarazi zioten 2012ko apiriletik 2013ko abuztura bitarte, jihadiak Maliko zati bat hartzeagatik. 2012 eta 2013 urteetan, indarkeriaren aurka borrokatze lanetan ibili zen Afrika Mendebaldean eta Sahelen, eta mugaz bestaldeko eta eskualde arteko adiskidetzaren eta elkarrizketaren alde borrokatzen. Oumou Sall-Seck-ek eskualdeko hainbat bileratan parte hartu du Europan, eta Maliren lurralde integritatea lehengoratzeko lagundu du.

Bakeari eta berreraikitzeari dagokienean, Nazio Batuek eta Frankofoniaren Nazioarteko Erakundeak antolatutako kontsultetan parte hartu du, eta Maliko eta Sahelgo bakearen erronkei buruzko International Peace Institute-an ere bai.